

# Hezkuntza Plaza Hutsean\_

Sar hitza_	5
<hr/>	
Hezkuntza Sistemak gure beharrak ase ez eta gainera gure herri interesen kontrakoak direnean_	7
Agorpena eta inboluzioa	7
Diagnosia	9
Txirikordatuta datorkigun zapalkuntza saldoak halabeharrez segregazioa dakar	18
<hr/>	

Begirada luzez norabidea eraikitzen hasteko tenorea; komunitatearen bulkadaz publikotasun eredu berria eraiki_	21
Estatugintza eta herrigintza uztartu	22
Administrazioen eta komunitatearen publikotasun berria	23
Herri hezitzailearen norabidean, hezkuntzatik prozesu demokratizatzaileak aktibatu	24
<hr/>	
Bidean aurrera pausuak elkarrekin ematen hasteko beharrez, gogoez eta gaitasunez_	27
Gaurtik, behetik gora, biharkoa eraikiz	27
Erakundeak baliatuz	28
Hezkuntza Akordioa, bategitea	31
<hr/>	

## 1. HEZKUNTZA SISTEMEK GURE ASE EZ ETA GURE HERRI INTERESEN KONTRAKOAK DIRENEAN

### AGORPENA ETA INBOLUZIOA

Euskal Herria bera, herri eta herritar gisa ditugun eskubideak praktikan jartzea eta egungo beharrak asetzea zein geure etorkizuneko proiektua osatzea ukatu egiten digute.

### DIAGNOSIA

- Subiranoa ez den nazioa.
- Patriarkatuaren zerbitzura.
- Neoliberalismoa elikatzen.
- Kultur transmisioa kolokan.
- Hizkuntzaren bermerik ez.
- Haurren kultura faltan.
- Trantsizio ekologikoaz batere.

### SEGREGAZIOAK, ZAPALKUNTZEN

#### ONDORIOA

Ezker Independentismoak nazio zapaldu, genreo eta klase ikuspegitik begiratzen die segregazioei. Jauzi kualitatiboa egiteko ordua delakoan gaude hezkuntza-eskubide guztien bermerantz, sendo, zatiketa gaindituz.

## 2. BEGIRADA LUZEZ NORABIDEA ERAIKITZEN HASTEKO TENOREA, KOMUNITATEAREN BULKADAZ PUBLIKOTASUN EREDU BERRIA ERAIKI

### ESTATUGINTZA ETA HERRIGINTZA

Gure ustez, Euskal publikotasuna subironao izanen da, feminista, euskalduna, inklusiboa, komunitarioa eta herritarra, deszentralizatua eta gertutik kudeatuta, ikasleak erdigunean kokatu dituen eta merkatuaren logikotik apartekoa, ala ez da izanen.

### ADMINISTRAZIOEN ETA KOMUNITATEAREN PUBLIKOTASUN BERRIA

Ohar gaitезen baldintza objetibo onak izan ditzakegula gure herriaren beharrianetara egokituko den hezkuntza sistema urrats berritzaileak emateko bi tradizioen hobereena batzeko gai bagara.

### HERRI HEZITZAILEAREN NORABIDEAN, HEZKUNTZATIK PROZESU

#### DEMOKRATIZATZAILEAK AKTIBATU

Euskal Herriaren garapen kultural, sozial, ekologiko eta ekonomiko justuaren bultzatzaile eta erantzule izango den komunitatea behar dugu, heziketa prozesuen erantzule izanen dena. Honek herri konpromisoa dakar hala beharrez.

## 3. BIDEAN AURRERA PAUSUAK ELKARREKIN EMATEN HASTEKO BEHARREZ, GOGOZ ETA GAITASUNEZ

### GAURTIK BIHARKOA ERAIKIZ

Gaurtik egingarri delakoan, gure herriak horretarako oinarri nahikoa duelakoan, beste inoren edo ezeren zain egon gabe, ikastetxe, udal, herri zein nazio mailan landu.

Erakundeak ere horretarako baliatu legedi burujabea(k) osatu bitartean.

### HEZKUNTZA AKORDIOA, BATEGITEA

- Oinarritzko kontsentsua posible dela deritzogu, saiakera beharrezkoa dela eta merezi duela.
- Abiapuntuak euskal publikotasunaren gaineko lurzoru komun bat eskatzen du, Euskal Eskola Publiko burujaberako trantsizio bidea elikatze posible egingo duena.
- Ahal dugula garbi dugu, momentuak eskatzen duen arduraz jokatzeko badugu denok.
- Ondoren, adostasunak markatzen duen norabidea ahal beste elikatu behar dugu, norik bere esparrutik.

## Sar hitza\_

Txosten hau azken urte luzean zehar Hezkuntzaren Plaza Hutsak (aurrerantzean PH) jasotako ekarpen eta gogoeten ondorio da. Ezkertiar independentistok hezkuntzaren inguruko hausnarketa patxadatsu eta burutsuari ekin behar geniola erabaki eta ekimena abian jarriz geroztik, hainbat plaza bete ahal izan ditugu, iritzi, ideia zahar eta berriz, kezka, ilusioz eta ametsez, hamarnaka lagunekin partekatu ahal izan dugu gogoetarako tartea, beti aberasgarria.

Eta zergatik hausnarketa behar hau? Bada garaiak zein egoerak horrela eskatzen duelako. Egungo hezkuntza sistemak agortuta daudelako, ez daudelako gure herriaren garapenerako pentsatuak, ez dutelako ditugun erronka zein arazo larriei aurre egiteko ere balio, eta horren aurrean erantzun kolektibo bateratua emateko -transbertsala eta herri gisara artikulatua izanen dena- zailtasunak agerikoak direlako. Ipar Euskal Herria bere buruaren eraikuntzan mugarri berriak jartzen ari delako eta eraldaketa prozesu horretan hezkuntzak ardatz izan behar duelako. Hego Euskal Herrian aldiz, Espainiatik lehenago ala beranduago datorren oldarraldi neofaxistari aurre egin eta gure hezkuntza eredua eraikitzeak akordioen behar gorrian gaudelako.

PH ekimenak horri guztiari erantzuten dio. Herri orok bere hezkuntza antolatzeko daukan eskubidearen ideia ardatzean kokatzeaz harago, burujabetza prozesua bera hezkuntzatik elikatzearen eta bultzatzearen garrantziaz jabetuta abiatu baitzen, hezkuntzari jendarte eraldaketarako gaitasuna aitortuz eta horren premia larriaz jabetuta. Indarrean ditugun Hezkuntza Sistemetan erdaren, patriarkatuaren eta multinazionalen esku hartze eta eragina gordina zaigunean, erreakzionatzea dagokigu, indarrak batu eta konplizitate eta aliantza berrien bila jo, indarra metatu eta gurea guregandik sortu.

Gauzak horrela, dozenaka ekarpen jaso ditugu bidean. Une honetan garbi dugu: etorkizuneko Euskal Hezkuntza Sistema elkarrekin eraikitzen hasteko eguna gaur da.

# **Hezkuntza Sistemak gure beharrak ase ez eta gainera gure herri interesen kontrakoak direnean\_**

## **Agorpena eta inboluzioa\_**

Euskal Herriaren errealitate linguistiko, kultural eta sozio-ekonomikoen beharrei euskal herritarrok erantzuteko eskubidea, beharra eta erantzukizuna badaukagu ere, datozen -eta gaurko- belaunaldaiaren hezkuntza euskal jendartearen ardura izanik ere, euskal herritarrok ez daukagu gure egoeran eta beharretan oinarritutako hezkuntza-eredu ezta hezkuntza sistemarik ere.

Frantziar eta Espainiar estatu patriarkal neoliberalak dute Euskal Herriko hezkuntzaren kontrola, estatuon interesen baitan, euren joko arauak eta ikuspegi ideologiko, identitario, linguistiko, kultural eta sozio-ekonomikoak inposatzen dituz-

te. Egoera horretan, Euskal Herria bera, herri eta herritar gisa ditugun eskubideak praktikan jartzea eta egungo beharrak asetzea zein geure etorkizuneko proiektua osatzea ukatu egiten digute.

Egungo egoeraren argazkiarekin hasteko, arestian esan bezala, egun, gurean, hezkuntza sistema frantses eta espainol inposatuak aplikatzen zaizkigu/ditugu; merkatuaren esanetara dauden bi hezkuntza sistema, atzerakoiak, neoliberalak, zentralizatzaileak eta patriarkalak biak.

Sistema horiek dira -eta ez beste ezer- gure eremu administratibo desberdinetan aplikatzen eta kudeatzen direnak, kasurik onenetan, hezkuntza-eskaintza eta curriculumari dagokionez, geurera egokitutako aldaketa batzuk egiteko aukera dagoela (minimoak, curriculumaren kasuan). Eta sistema horien menpe daude gure eskola guztiak, ikastola, kontzertatu edo publiko izan. Denek bete behar dituzte haien esanak, denek haien hezkuntza legeen menpeko izan.

Honek, bistan denez, ez du inondik ere esan nahi inposizioa gainditzeko saia-kerarik izan ez denik eta ez dagoenik sare ezberdinetan ere. Herri honetan, asko eta asko dira gure hezkuntza sistema propioaren bidean aurrera eramane ditugun eta daramatzagun ekimenak, lokalak zein nazio mailakoak, herri egitasmo burujabe baten bidea marraztera datozenak hain zuzen ere. Zorionez, titularitatea bat ala beste izan, eta soilik azken 30 urteoi begiratuta, gure eskola asko eta askok berenak eta bi egin dituzte inposatutako sistemei aurre egin eta, ahal izan duten neurrian, gure herri, herritarron eta, bereziki, ikasleen beharretan oinarrituz, ahalik eta kalitate handieneko hezkuntza eskaintzeko. Luze joko luke orain eta hemen denak bat banaka aipatzea, doala, beti ere, gure aitortza eta errekonozimendua hezkuntza eredu sozialki justu, demokratiko, kohesionatu, feminista eta euskaldun baten alde egindako eta egiten ari den lan guzti horri.

Hasteko, non gaudenaren azterketa egingo dugu. Azterketa partziala, zalan-tzarik gabe. Batetik, azter daitezkeen parametroak horrenbeste eta horren zabalak



izanik, batzuk baino ez ditugulako aukeratu, gure ustetan, egungo hezkuntza-ereduaren agortzea eta hezkuntza-burujabetzaren beharra agerian uzten dutenak eta, ondorioz, geuk erabakitako hezkuntza-ereduan zer ez errepikatu eta nondik jo ikusten lagunduko digutenak. Bestetik, eta zatiketa juridiko-administratiboaren eraginez, Euskal Herri osoko ikuspegia ematen duten datuak biltzea ia ezinezko dugulako eta, horrenbestez, jaso ahal izan ditugun zenbait datutan, hainbat aztertzailerik mahaigaineratu dituzten zenbait egoeretan, gure eskarmentuan eta iazko prozesuan jasotako ekarpenetan oinarritu dugu azterketa hau.

## Diagnosia\_

Pairatzen dugun menpekotasun juridiko-administratiboak gure hezkuntzan dituen ondorioen irakurketa ardatzetan antolatuko dugu hemen, nahiz eta errealitate konplexu honetan kokaturik, nekez azter daitezkeen isolaturik. Aldiz, erpin anitzeko osotasun bakarraren irudipean irakurtzea aberatsagoa izanen zaigu. Statu quo eta une historiko zehatz baten baitako ondorio dira beraz hemen laburki deskribatuko ditugunak, eskutik elkar hartuta, txirikordatuta, eta kasu gehienetan paradigma eta interes politiko berdinen baitan norabidetuak direnak.

## Subiranoa ez den nazioaren patua\_

Euskal Herriaren beraren ukaziotik abiatuta, espainiar eta frantziar estatuek herri eta herritar gisa garatzeko funtsezko eskubideak ukatzen dizkigute, eta, ondorioz,

eskubide horiek gauzatzeko aukera, hitza eta erabakia. Ukazio horixe da, hain zuzen ere, bizi dugun gatazka politikoaren oinarria. Gatazka politikoak esparru guztietan du bere isla; baita, noski, hezkuntzan ere.

Estatu modernoan eskutik jaiotako hezkuntza sistemak estatu-nazioen erai-kuntza bideratzeko eta haien garapena eta biziraupena ziurtatzeko ezinbesteko tresna izan dira eta dira gaur egun ere. Ez da, beraz, kasualitatea, frantziar eta espainiar estatuak beren baitan biltzen diren menpeko nazioei hezkuntza sistema propioa antolatu eta arautzeko eskubidea ukatzea; izan ere, hezkuntza sistema, markatutako ordena sozial, politiko eta ekonomikoa birproduzitzeko tresna ere izan baita hasiera-hasieratik.

Paris eta Madrilgo gobernuek euren interesen neurria egindako hezkuntza sistemen bidez, Euskal Herriaren nortasuna, historia, hizkuntza eta behar sozio-ekonomikoen arabera hezkuntza sistema propioa ukatzen digute, beraz, euren inposatuz. Beraien lege eta arau zentralista eta homogeneizatzailen arabera aritzera behartzen gaituzte, egiten duten hezkuntza-erreforma bakoitzean gure herri nortasuna are gehiago desitxuratzeko ahalegina egiten dutela. Hego Euskal Herriaren kasuan, Frankismoaren erreformatik jaiotako 78ko erregimenak pisu handia du hezkuntzan, diktaduran sortutako sistemaren oinarriak begi bistan ditugu egungo hezkuntza sisteman. Subiranotasunik eza dago inposizioaren muinean, aurrerago garatuko ditugun ondorioak utzi dituelarik egungo hezkuntza sisteman. Hezkuntza sistema duala, eskola pribatu zein erlijiosoaren indarra, klase sozial baxuentzako ikastetxeak, hezkuntza sistema bertikala eta zentralizatuak, pedagogia zaharkituak, eredu patriarkala, etab. erregimenaren egiturarekin eta hezkuntza sistemarekin ez apurtzearen ondorioa dira. Egungo sistemaren mugak, hausten saiatzen ari garen kristalezko sabaia, 78ko erregimenak blindatutako sabaia da.

## Patriarkatuaren zerbitzura\_

Patriarkatutik eta patriarkatuarentzat sortutako ereduak belaunaldi berriak zapalkuntza pairatzen segitzera kondenatzen dituzte, genero arau bitarraren baitan haztera behartu, dibergentzia oro ezabatuz.

Izan ere, estatuak inposatzen diguten hezkuntza ereduak egiturazko sistema patriarkala bizirauteko diseinatuta dago, hezur-muinetan baitarama. Izan curriculumetan jasotzen diren edukietan, zein hezteko eta mundua ulertu eta interpretatu ahal izateko proposatzen diren bide partzialetan, izan helarazi nahi dituen balio indibidualista eta lehiakorretan. Curriculum androzentriko eta akritikoak ezartzen zaizkigu, egitura patriarkal ororen bistaratzaille direnak eta menpekotasuna ezkurtuko curriculum gisara jorratzen dutenak.

Ekitatearen lanketa, justizia soziala, genero ikuspegia, ahalduntzerako ariketa kolektibo zein indibidualak, ahizpatasuna, maskulinitate ereduak buruzko hausnarketak, aktibismoa... ez dira hezkuntza sistema hauen lehentasuna; norbanakoen garapenerako ezinbestekoa den alderdi sexual eta emozional-afektiboaren lanketa berdina.

Bestetik, orokorrean, gizonezko zuri, boteretsu, heterosexual, urbano, erdaldu, eros-ahalmendunak... izan ohi dira testuliburuetakoko protagonista nagusiak.

Hori gutxi balitz, genituzkeen eskumen urrien baitan sortutako proposamen hezkidetzaille feministak jazarpena eta judizializazioa jasan behar izan dute, proposamen dibergenteak gatazkaren zurrumbilora eramanez nahian baitabilta botere faktiko zenbait.

## Neoliberalismoa elikatzen\_

Bestalde, testuinguru neoliberallean estatuak argiki ari dira sistema kapitalistaren mende eta interes pribatuen alde, ondorioz, zerbitzu publikoa privatizatzen doaz pixkanaka, komunitatearena beharko lukeen publikotasuna, kapitalaren eskuetan utziz, lotsagabeki.

Mendebaldeko estatuen hezkuntza sistemetan, historikoki, hezkuntza enpresen interesei begira antolatu izan da, askotan helburu pedagogiko, moral eta etikoak desitxuratzearaino eta xede diren pertsonaren garapen integrala eta aukera berdintasunari muzin eginez. Ikasleriaren interesak eta bertako jendartearen behar errealak ez dira kontuan hartu maiz, are gutxiago hezkuntza etapetan aurrera egin ahala. Hamarkada zenbait dira hezkuntza aztertzen duten sektore kritikoek salaketa hau egiten dabiltzala; curriculumak, testu liburuen ezaugarri eta egiletzak, erabilitako hezkuntzaren soslaiak, lehenesten eta baztertzen diren eduki eta jakintzen nolakotasuna, diagnostiko frogan homogeneizazio zein hauen erabilera politiko eta alderdikoiak, kudeaketa eraginkorragoa bihurtzeko enpresa mundutik ekarritako kalitate estandarrak...

Alta, azkeneko ikasturte hauetan are kezkarriagoa den inertzia eta dinamika berri zenbait ikusten ari gara, kasu askotan aurrerapenaren izenean -merketinaren, lehiakortasuna eta konpetentziaren izenean baita!- modu ez kritikoa onartzen ari direnak. Gisa honetan, hezkuntzaren hirugarren mailako zehaztapena deitu izan zaion horretan, alegia, egunerokoari, harremanei, hezitzaileek egiteko moduei eta gelako erabakiei dagokion eremu horretan, era kezkarriaren sartzen dabil merkatua, gehienetan hezkuntza eremuan eragiteko sortzen dabilzan ehunka enpresa eta lobbyen esku hartzeari esker. Hezkuntzaren barne prozesuen privatizazioak aurpegi adeitsu eta teknologia modernoak jantzita datoz orain, balantza merkatuaren alde erabat desorekatzera etorri badira ere. Puntako teknologia, ekipamendu eta softwarea, metodologi berrien ezarpenerako kanpo pertsonal aditua, edota bertze hainbat barne prozesuren merkantilizazioa ikusten ari gara, orain

artean hezkuntza komunitateko kideen eskumen izan diren horiek salerosi litekeen produktu gisara erabilia.

Komunitateari eskuetatik ardurak, espazioak eta erabakimena kentzen dihoakion ikuspegi ekonomizista pribatizatzaile honek ezin du porrota baino eka- rri; porrot pertsonala ikasle zein irakasleentzako, porrot administratiboa eskumen oro salduz gero, porrot ekonomikoa sorrarazitako menpekotasunen ondorio, eta porrot humano eta soziala komunitateari eta herriari dagokion ardura nagusietako bat kapitalaren esku jartzeagatik. Askatasuna, aukera berdintasuna, kohesioa eta parte hartzea helburu ditugunontzat, joera honek kontrako norabidean jartzen gai- tu bistan denez.

### [Kultur transmisioa kolokan\\_](#)

Kultura eta identitate mailan estatuek euren biziraupena ziurtatuko duen ikuspegi ideologiko- kultural-identitarioa inposatzen digute euren neurrira ezarritako hez- kuntza curriculumen bidez. Beraz, curriculumek karga ideologiko handia daukate eta, ondorioz, ez curriculumak ezta berau garatzeko sortzen diren material kurriku- larrak ere -testu liburu eta material multimedialak nagusiki- ez dira neutroak; esta- tuen momentuko interesei erantzuten dieten curriculumaren egokitzapenak bai- zik, transposizio didaktiko jakin zenbaiten bidez eredu hegemonikoaren isla hutsa. Makinaria honek periferian uzten ditu herri eta pertsona subirano gisara zentralak litzaizkigukeen hainbat arlo, eduki eta eredu.

Horrela, gure herrian aplikatzen diren curriculumetan, ez dira ez Euskal Herria bera ezta, noski, gure ikuspegi kultural-identitarioa aintzakotzat hartzen, ez, bis- tan denez, euskal komunikazio sinboliko eta kulturalari tokirik uzten. Autonomien eskuduntzen baitan gelditzen den curriculumaren zatitxoaren diseinuan, praktika isolatu interesgarri zenbaitez gaindi, ez dago euskal kultura modu egituratu, anto-

latu eta iraunkorrean lantzeko tresnarik. Akaso, eta larriagoa dena, salbuespenak salbu, ez dago horren eskaririk eta arduraren kontzientzia sakonik ere. Motibazio funtzionaleko hizkuntzaren transmisio huts batera mugatu da maiz eskariaren pisa, sarri hau bermatzeko ere neketan gabiltzalarik.

Euskal Herriko ikastetxe asko eta askotan lantzen den euskal curriculum herriar "alternatiboan" ordea, ondo kontuan hartzen diren elementuak dira horiek -hainbatetan ederki kostata-; hori dela eta, lerrootatik gure aitortzarik zintzoena helarazi nahi diegu lan horretan aritu eta ari diren guzti-guztiei.

### [Hizkuntzaren ezagutza ere bermatzen ez duten bi sistema](#)

Euskara duela 40 urte ofiziala den gure herriaren eremuan ere, gobernu autonomikoek bere normalizazioarekiko agertu duten interes eta gaitasun eza tarteko, ikasleriaren kopuru esanguratsua ez da eskolaren bidez euskalduntzen; alegia, derrigorrezko eskolalditik ateratzean ez dira gai beren bizitza, normaltasunez, euskaraz egiteko. Nahiz eta ikastetxe ugari izugarritzko ahalegina egin duten (eta emaitza positiboak lortu ere, askotan), hezkuntzaren bidez urteetan garatutako euskalduntze prozesuak sabaia jo du. Bi ondorio atera ditzakegu hemendik: batetik eskolak bakarrik ezin duela belaunaldi berrien euskalduntzea bermatu, eta bestetik, hizkuntzen irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuek bestelako plangintza eta baliabide nahikoak behar dituztela (hizkuntza ereduen sistema gaindituz behingoz) ikasle euskaldunak eta eleaniztunak heziko baditugu.

Euskara ofiziala ez den eremuetan, eskolaren bidez euskalduntzeko, ikastolara bideratu behar izan dira ikasleak, ezinbestean. Administrazio desberdinek jartzen dituzten etengabeko oztopoak gehitu behar zaizkio horri eta, noski, horiek gainditzeko eskola euskaldunek eta familiek dituzten larritasunak eta zorpetzeak.

Dena den, euskarazko hezkuntza eta hezkuntza euskalduna ez dira gauza bera. Euskalduntasuna bere osotasunean hartzea ezinbestekoa dugu; alegia, hizkuntza eta kultura batera ikusi behar ditugu; izan ere, hizkuntza bat ez baita komunikaziorako tresna hutsa, kultura baten isla eta adierazle baizik. Kulturarik gabeko hizkuntzek, eta hizkuntzarik gabeko kulturek bizitza mugatua dute.

Horrez gain, hizkuntza ezagutzeaz harago, euskarak hizkuntza hegemoniarako eta normalizaziorako aktibista ahaldunduak behar ditu, eta hori, bistan denez, euskara jakite hutsetik harago doan lan pertsonal eta kolektibo baten ondorioa da, zeinetarako gaitasunak eman beharrean legokeen eskola.

Horregatik, tokian tokiko curriculumekin batera, guztiok bilduko gaituen curriculum propioa, hau da, bere garaian zehazten hasitako Euskal Curriculumak garatzea ezinbestekoa dugu. Euskalduntasuna, hizkuntza gaitasun formalez harago transmititzeko gai izanen dena. Norabide horretan, ezin aipatu gabe utzi, Euskal Curriculumean oinarrituta, nazio ikuspegitik zein ikuspegi lokaletik egin den apustu pedagogiko oro. Finean, euskal herritar euskaldun eleaniztunak sortuko dituen curriculumak behar dugu, aski urrun gaur gaurkoz dugun horretatik.

### [Haurraren kultura kontuan hartzetik urrun\\_](#)

Ezarririk curriculumek helduaren begiradatik irakasten diote haurrari. Errealitatea era instrukzional eta zatikatuan lantzen dute, eredu transmisibo linealetan oinarrituta, haurrarentzat maiz zentzurik ez daukana, esperimentazioa eta jolasteko euren joera naturala gutxiesten baita.

Gero eta informazio unitate gehiago ematen zaizkie, elkarrekiko loturarik gabekoak, eta zuzeneko esperientzian oinarritu gabe (liburuen edo bitarteko elektronikoen bidez). Haurrei barruan daramatena ateratzen lagundu behar zaie, or-

dea. Ekintza norbere barrutik ateratzen denean, pasioaren indarrak lagunduko dio haurrari bere borondatearen sendotasuna eta iraunkortasuna garatzen, mundua ulertzeko eta deskribatzeko bere gaitasun aske eta irudimentsuaren potentziala askatuz. Azken baitan, norbera izateko hezi behar ditugu pertsonak, sentimendua-  
ren, pentsamenduaren eta ekintzarako bulkadak elikatuz, ezagutzen begiratu ho-  
listikoa lagun.

Elkarrekintza, elkarlana, elkarkidetzeta, kritikotasuna, autonomia, lan erritmoen errespetua, jarrerak, ardura, ikaskuntza laguntzako behar berezien eta, aniztasun mota guztien integrazioa... alegia, inklusioa bermatzen duten elementu guztiak, orokorrean, hitzetan baino ez dira geratzen; kasurik hoberenetan, nola edo hala, ikastetxe -edo, gehienetan, irakasle- banaka batzuen borondate, interes eta denboraren menpe baino garatzen ez diren alorrak izaki.

Orokorrean, hezkuntza etapa bakoitza (eta, askotan, ziklo bakoitza ere) departamentu estankoa balitz bezala antolatu ohi da, non, maizegi, batetik, helburu hezitzaileak baztertu egiten diren eta helburu akademiko edota profesionalek erabateko lehentasuna hartzen duten. Bestetik, ikasgela hartu ohi da ikaste/irakaste-gune bakar gisa, non zentroko gainontzeko guneek eta hezkuntza ez formalak edota informalak eskaintzen dituen aukerak kontuan hartuak ez diren. Azkenik, denon ahotan bizitza osoa irauten duen hezkuntza, ikasmaila, ziklo, etapa eta esparru desberdinen arteko koherentzia eta progresioa ziurtatuko duen koordinaziorik gabe antolatu eta kudeatzen da.

Herri hezitzailea, beraz etikoa izanen den herri hezkuntza eredua, ikasleak begiratzetik eta entzuten jakitetik abiatu beharko da, zentzu guztiekin adieraztera datozenak aditu eta subjektu politiko gisara aitortu, behingoagatik. Gure herrieta-  
ko askotan dagoeneko abian diren gisa honetako ekimenez baina ez dute inolako islarik ezarri zaizkigun curriculum ofizialetan.



## Trantsizio ekologikoarekiko erantzukizunik ez\_

Gaur egungo curriculumek kontuan hartu ere egiten ez duten afera honi aurre egingen dion proposamen integrala garatu beharrean gaude. Klima larrialdi egoeraren gaude, erregai fosil eta mineral estrategikoen agortze aldia bizitzen ari gara eta bioaniztasun globalaren etengabeko galera ere bai. Hau da: gure espeziearen bideragarritasuna ezbaian paratzen duen krisi ekosozialaren erdian gaude.

Kapitalismoaren diktadura basatiak gure espeziearen bideragarritasuna bera ezbaian paratu du. Beraz, etengabeko hazkundean eta kontsumo neurrigabearen oinarrituriko logika ekonomiko eta kulturala puskatu beharra dago, aldaketa antropologiko sakona bultzatu bidenabar. Espainiako eta Frantziako estatuak edo Hego Euskal Herriko gobernuek, kapitalaren erreprodukzio logikarekin guztiz bat egiten dute, eta, solasetatik harago, ez dirudi premiazkoa ikusten dutenik haien erantzukizuna aitortu eta pedagogia planeta jasangarriago baten mesedetan jartzeko.

Zalantzarik gabe, hezkuntza, eraldaketa sozialerako ezinbesteko tresna izan daitekeen modu berean, ukaezina da kapitalismoaren balio sistema eta iruditeria barneratzeko tresna ere izan daitekeela. Merkatarien Europa honetan, estatu agintariak, bi bideren arteko hautua egin beharrean daudelarik, pausu ausartak emateko borondate irmorik ez dute erraz erakutsiko. Klima eta ingurugiro terminoetan abagune historikoa bizi dugun honetan, herritarroi dagokigu larrialdia bistaratzea eta aldaketa oinarritik bultzatzea. Jendarte ekologiko, justua eta demokratikoa, elkartasuna, komunitarismoa, erantzukizun indibidual zein kolektiboaren kontzientzia eta ama-lurraren zaintzan trebatuko duen hezkuntza eredua behar dugu. Aldi berean, eta honekin koherente izaki, ikastetxe, material, garraio eta jangela jasangarriak lehenetsiko dituen eredua.

## Txirikordatuta datorkigun zapalkuntza saldoak halabeharrez segregazioa dakar\_

Estatu ideologiak ondorio jakinak izan ditu eta ditu gure hezkuntza sistemetan, gaurko eta etorkizuneko ikasle eta herritarrengan; besteak beste, hizkuntzaren normalizazioan aurrera pausuak behar baino txikiagoak izatea, kultur transmisio eskasa, klase kontzientziaren ahultzea, prekarietatea areagotzea eta normaltasunez onartzea, emakumeak herri garapenean duen rola gutxiestea eta bigarren mailakotzat jotzea, desberdinkeriak areagotzea xenofobia eta arrazakeria bultzatuz, gutxiengoen kultura eta hizkuntzak gutxiestea, pertsonak inolaz ere erdigunean kokatzen ez dituen diskurtso politikoek hedapena, tokiko garapen jasangarriaz hitz egiteko tarterik ez izatea indarrean dauden curriculumetan... alegia, oro har, euskalduna, demokratikoa eta kohesionatzailea izanen den sistematik urrun, inposatua, bertikala eta geroz eta nabarmenago segregatzailea den hezkuntza ereduan murgiltzea.

Segregazioa, beraz, kapitalismo patriarkalak eragindako arazo soziala eta gaitz sistemikoa da. Gure kaleetan, instituzioetan, lantegietan, eskolan... toki guztietan dago eta, beraz, sistema eraldatzen ez dugun bitartean bizirik iraungo du.

Ilido horretan, asko hitz egiten da eskola segregazioaz. Eskola segregazioak, baina, batetik, aurpegi asko ditu –sexuarena, maila soziala eta klasearena, hizkuntzarena, jatorriarena, erlijioarena, desberdintasun funtzionalena...-, horregatik hitz egiten dugu guk segregazioez, pluralean. Eta, bestetik, tokian toki forma desberdinak hartzen ditu segregazioak. Gure kasuan, herri-kultura-hizkuntza zapaldu bat izaki, aipatutako segregazioetako batzuk nabarmendu egiten dira. Beraz, tentu handiz aztertzeke gaia da segregazioena, tartean izan daitezkeen interesen araberrako hierarkizazio tentaldi oro baztertu behar da, eta herri bezala –herri ukatu bezala-, gure egungo baldintzak ondo aztertuta, irtenbide integralak planteatu eskola segregazioen arazo larriari.

Maila orotako inboluzio eta segregazioak ekarri eta “normalizatzen” ari den estrategia beldurgarriaren ondorioetara itzuli gara. Izan ere, ez gara epe laburreko estrategiaz ari. Badira hiru bat hamarkada horretan ari dela “merkatua” izen etereoarekin bataiatua izan den aingerutxo. Eta, geratzeko asmoz datorren arrisku objektiboaz ari gara.

Azken hamarkadotan hezkuntza euskaldunagoa, hezkidetzailleagoa, modernoagoa... eraiki dugu, baina, ez dugu hezkuntza euskalduna, hezkidetzaillea edo modernoa eraiki. Ez ditugu klase diferentziak gainditu eta eskolak segregatzen jarraitzen du: jatorria zein klase soziala dela; hizkuntza dela; erlijioa edo sexua aitazkia gisa hartuta, hiri eremua vs. landa eremua...

Ezker Independentismoak nazio zapaldu, genero eta klase ikuspegitik begiratzeko die segregazioei. Horregatik, bereziki kezkatzen gaitu jatorria eta klase sozialaren araberrako segregazioak. Kapitalismoak eragindako bereizketa soziala, ikuspegi neokoloniala eta arrazista areagotzen ari da esponentzialki gure auzo eta herrietan zein ikastetxeetan. Gaurko Euskal Herria ez da orain hamar urtekoa eta hamar urte barrukoa egungoa baino askoz anitzagoa izango da. Egun hezkuntza duala gailentzen ari da, jatorri atzerritar eta klase sozial baxukoentzako eskolak eta autoktonoentzako eskolak ugartzen ari dira. Jatorri atzerritar eta klase sozial baxuko ikasleei, kalitatezko hezkuntza jasotzeko eskubidea ukatzen zaie, baina ez hori bakarrik, beraien jatorrizko hizkuntza eta kulturak eskolara iristean desagertu egiten dira, hegemonikoak diren hizkuntza eta kultura espainol eta frantsesa bakarrik transmititzen zaielarik. Gauzak horrela, nazio, klase eta genero zapalkuntza hirukoitza modu gordinean bizi duten ikasleak dira segregatutako eskoletan ikasten dutenak. Ezker Independentismoak lehentasun bereziz aurre egin behar dio jendartean arrakala larria sortzen ari den fenomeno honi, zorrotasun ideologikoarekin eta hezkuntza politika ausartak egikaritzuz. Jatorrizko hizkuntza eta kulturekiko begirune gorenaz, euskara eta euskal kultura ardatz izango duen kulturarteko zein kalitatezko hezkuntza inklusiboa eskainiz ikasle guztiei.

Gaur gaurkoz, ez daukagu geuk kudeatu eta garatu dezakegun hezkuntza-sistematik: hizkuntza ereduen inguruko erabakiak hartu, curriculumaren inguruko erabaki estrategikoak hartu, ebaluazio hezitzailea garatu, langileen sarbide mota adostu eta gauzatu, giza eta diru baliabideak zenbatekoak izan behar duten eta nola kudeatu... Finean, egun inposatzen zaigun hezkuntza-ereduak ez ditu hezkuntza-eskubideak bermatzen. Hitz gutxitan, topeak aurkitu ditugu, ez aurrera eta ez atzera gabiltza, indarrean dauden hezkuntza-sistemak agortuta daude eta trantsiziorako proposamen honen bidez jauzi kualitatibo bat egiteko ordua delakoan gaude hezkuntza-eskubide guztien bermerantz.

Ez dago zalantzarik, inposatzen zaizkigun hezkuntza sistema frantses eta espainolak eragin zuzena dute bizi dugun egoeran. Baina ez dira arduradun bakarrak. Ardurak, klase politikoan eta instituzioetan bilatzen baditugu, aurkituko ditugu: hezkuntza-kontuetan esku-hartzea eta ardura duten administrazio orotan; estatalean zein autonomikoetan. Baina onerako eta txarrerako, hezkuntza komunitatean, eta baita, ezkerreko independentismoan ere, badugu zer hausnartu; aurrerapenak egin ditugunean, herri bultzada sendo baten ondorioz izan da, eta bultzada hori, gaur, apalduta dago, zatituta; aurrerapen esanguratsuak egiteko, hezkuntza komunitateak, bizi-bizirik eta batuta egon behar du. Egoera iraultzeko, eta foro partekatuek ematen duten aukera baliatuz, ekintzailetasuna berreskuratzeko tenorea da.

# **Begirada luzez norabidea eraikitzen hasteko tenorea; komunitatearen bulkadaz publikotasun eredu berria eraiki\_**

Gure ikuspegitik, hezkuntza prozesuaren xedea norbanakoen, komunitateen eta naturaren bizi- iraupena, garapena eta etengabeko hobekuntza erdiesteko ezinbestekoak diren kompetentziak ahalik eta gehien garatzea da; bizitza erdigunean jarri eta hau duintzeko tresna eraginkor bilakatu ikaskuntza eta irakaskuntza prozesu oro. Hezkuntzaren xedea den kompetentzien garapen hori ez da mugatzen bizitzaren etapa jakin batera, ezta noski, hezkuntza-zentroetan gauzatzen den heziketara ere. Hezkuntza bizitza osoan zehar dirauen prozesua da, bizitzaren esparru guztietan gauzatzen dena, etengabeko eraldaketan ari den jendartearen oinarria eta, ondorioz, maila eta esparru guztietan, etengabeko formazio prozesuan oinarritu behar duena. Alegia, bizitza osorako hezkuntza dugu oinarri.

## Estatugintza eta herrigintza uztartu\_

Gaur gaurkoz hezkuntza eredu subalternoak darabiltzagu eskuartean, beraz, subiranoak eta demokratikoak izatetik urrun daudenak, nahi ala ez, estatuen menpekoak lege bitartez eta, Hego Euskal Herriari dagokionez, autonomien estatuaren neurrira -zatiketaren neurrira- egindakoak.

Hori horrela izanik ere, gure iritziz, guk, euskal herritarrok, badugu nahikoa gaitasun gure herriak eta herritarrok zer hezkuntza mota behar dugun zehazteko eta, noski, baita aurrera eraman nahi dugun publikotasunaren parametroak guk geuk erabakiz, geure publikotasun-eredu propioa sortzeko ere. Gure eredu publikoaren ezaugarrietan sakontzea dagokigu beraz. Gure ustez, Euskal publikotasuna subiranoa izanen da, feminista, euskalduna, inklusiboa, komunitarioa eta herritarra, deszentralizatua eta gertutik kudeatuta, ikasleak erdigunean kokatuko dituen eta merkatuaren logikatik apartekoa. Norabide horretan, eraldaketa sakonak beharrezkoak ditugu; horiek gauzatu ahal izateko, ordea, euskal hezkuntza sistemarako antolaketak propioa behar dugu, egungo zatiketa gaindituz, ikastetxeen autonomia sustatuz, hezkuntza langile eta zuzendaritza taldeen prestakuntza eta egonkortasuna bultzatuz eta azkenik, inklusioa, kohesioa eta aukera-berdintasuna ortzi-mugan direlarik, hezkuntza-premiei erantzuteko finantziazio egokia bermatuz.

Publikoa diogunean, beste asko esan nahi dugu: irekia, agerikoa, sarbide librekoa, ez-arbitrarioa, jendeak zuzenean parte-hartuz auzolanean egindakoa eta komunitarioa. Hitz batez, demokratikoa, behetik gora bultzatutakoa. Horretarako herri gisa ditugun akordioak eta hartzen ditugun erabakiak gauzatzeko ahalmena eskuratu behar dugu, euskal hezkuntza sistema propioa antolatzeke gaitasuna egikaritzeko ahalmena hain zuzen ere, ez baita nahikoa eskubidearen aitortzarekin, erabakitzen dugun hori gauzatu ahal izateko ahalmena da bermatu behar duguna. Helburua subiranotasuna erdiesteko gaitasun materiala lortzea bada, estatugintza eta herrigintza uztartu egin behar ditugu gure praktika politikoan.

## Administrazioen eta komunitatearen publikotasun berria\_

Zer da publikoa eta zer pribatua? Nola ulertzen dugu publikotasuna? Zein da XXI. mende globalizatu honetan gure herriaren demokratizazio prozesuak eskatzen duen publikotasun eredua? Lehenik eta behin, esan behar da, ez dela hezkuntzari soilik eragiten dion eztabaida bat, eztabaida honen interesa ez dela hezkuntzaren mundura mugatzen, alegia. Aitzitik, Euskal Herriaren instituzionalizazio prozesuaren nolakotasunaren muina ukitzen duen gaiaz ari gara: botere politikoa nola antolatu behar dugun, edo nahi bada, nolakoa behar duen euskal estatugintzak.

Eztabaida hau 2020an bizi dugun testuinguru historikoan kokatu behar da, publikotasunaren eztabaida ez baita orain 30 urteko eztabaida berdina. Egin diogu erreferentzia testuinguru globalari eta aipatu dugu gure autogobernu sistemaren zaugarritasuna; eta, errealitate horren baitan, hezkuntza sistemaren agorpenaren nolakoa. Gehitu horri, positiboan, fase politiko berrian indartzen ari diren dinamika autoeratzailleak –aldaketa Nafarroan, Lurralde Elkargoa Ipar Euskal Herrian, estatus politikoaren eztabaida Erkidego Autonomoan–. Ezin dugu eztabaida hau 1993ko parametro berdinetan egin.

Demokraziaren pribatizazioaren garai historiko honetan publikotasunaren eztabaidak erabateko gaurkotasuna du: Nola egin merkatuaren irabazteko interesak gure bizimodua eta lurraldea suntsitu ez ditzan? Nola bermatu gaitasun politikoa pertsonen eskubideak babestu eta gizarte kohesioan aurrera egiteko? Nola indartu arazo eta erronka komunei erantzuteko gaitasun kolektiboa, lurraldearen gainean erabakiak eraginkortasunez hartzeko gaitasuna husten ari den garaian? Nola lurraldetu, tokiratu, boterea, nola antolatu botere politikoa autogobernu indibidual eta kolektiboa helburu duen demokratizazio prozesua ahalbidetzeko? Finean, zein estatugintza paradigma dabilkigu eskuartean? Munduaren luze-zabaleko egitasmo emantzipatzaile orok mahaigainean duen eztabaida da honako hau, eta ad-

ministrazioaren eta komunitatearen arteko hibridazio aukerak ari dira aztertzen gaitasun publikoa bermatu eta indartzeko helburuz: estatugintza (kon)federala.

Ekar dezagun bada paradigma hori hezkuntzaren esparrura eta ohar gaitetzen baldintza objektibo onak izan ditzakegula, hezkuntza sistema aurreratuenen erreferentziak baliatuz, gure herriaren beharrietara egokituko den hezkuntza sistema bat pentsatu eta bere garabidean urrats berritzaileak emateko; bi tradizioen hoberena batzeko gai bagara behintzat: Ikastolen mugimenduak izan duen gaitasun autoeratzailerik –komunitarioa– eta gure egungo sistema instituzionalaren baitan garatu den eskola publikoaren sen berdinzalea. Azken 30 urteetan gure ahulgunea izan dena –zatiketa eta konfrontazio iturri– indargune bilakatu ote zaigun, Euskal Eskola Publiko burujabea pentsatu eta trantsizio-bidean konpromiso historiko berriak hartzeko baldintzetan ote gauden.

## Herri hezitzailearen norabidean, hezkuntzatik prozesu demokratizatzaileak aktibatuz

Hezkuntza ardatz nagusietako bat da edozein mugimendu edota prozesu askatzaile kolektibo zein indibidualean. Hezkuntzak, komunikazioari eskutik helduta, testuinguru eta une historikoarekin elkarrekintzan jartzen gaitu, horiei buruzko galderak eta erronkak erantzuten jarri behar gaituelarik halaberrez. Maila indibidual zein kolektiboan ezagutza eraiki eta deseraikitze bultzada izatea, pentsamendu kritiko eta dibergentearen akuilu, enpatia, asertibitatea eta ahalduntzearen sustatzaile, jakintzen eta munduaren ikuspegi integral eta holistikoetarako bide emanez, elkartasuna, kohesioa, justizia soziala eta demokraziarekiko konpromisoa izan



beharko lituzke helburu hezkuntzak. Horixe bera da ezkerreko euskal independentistok lortu beharreko hezkuntza eredua. Horixe, bere adierazpide ezberdinetan -formala, ez formala, informala- hain zuzen ere, burujabetza prozesua bultzatze bidean jarriko gaituen tresnarik indartsuenetako bat.

Hezkuntza ereduari dagokionez, une honetan, estatuen ustez gizarteak dituen premiei erantzuteko behar diren pertsonak hezten ditugu, horretan ari garela ohartu ere egin gabe, sare publikoan, ikastolan zein itunduan ere. Baina ikasleak norbera izateko hezi behar ditugu, norberak dakarren barne-indarraren, gaitasunen eta pasioaren bidez beren lekua aurki dezaten jendartean, honi -komunitateari- zer ekarpen egin nahi dioten aurkituz bidenabar. Bizitzarako eta komunitaterako komunitatean heztearen herri konpromisoa behar dugu beraz.

Horretarako, batetik, hezkuntza komunitateko kideek haurren garapenari buruzko jakintza sakona izan behar dute. Hezkuntza jarduera haurraren barne prozesuak sakonki ezagutu eta errespetatu gabe gauzatzen bada, injerentzia larria egiten baitugu haurraren garapenean. Haurraren begirada aditzen ikasi beharko dugu beraz, euren hizkuntza denak begirunez entzuten eta haien izateko eta munduan egoteko, ikasteko, jolasteko, adierazteko eta eragiteko moduen jite politikoa aitortu eta kontuan hartu behingoagatik. Zentzu horretan, irakaskuntza eta heziketa artea dira, haurren ekimena aldiz, politika.

Baina hezkuntza, ez da, bistan denez, eskola edo eremu formaletara mugatzen den jarduera soil. Hezkuntzak jendartean eragiteko gaitasuna dauka, jendar-teak hezkuntzan eragiten duen neurri berean, indarrak horretara batuz gero. Eta hori da, hain zuzen ere, herri hezitzaileen filosofiak eskatzen digun konpromisoa; pentsa ditzagun espazioak eta herri eragile oro hezkuntza agente gisara, pentsatu haurren eta gaztetxoaren iritzi, iradokizun eta proposamenak zinez gauzagarritzat, komunitatearentzako onuragarriak diren heinean -haurraren izateak ematen baitugu inklusibitatearen neurria-.

Euskal Herriaren beharrei erantzuteko, hezkuntza integralaren aldeko apustua egiten dugu; jaiotzarekin hasi eta bizi bitartean irauten duena; norbanako gisa, herri/jendarte kide gisa eta natura kide gisa, ikasten, pentsatzen, komunikatzen, egiten, ekiten eta elkarrekin bizitzen ikasteko konpetentziak landuz, pertsonaren garapen integrala bultzatzen duena; barne kohesio maila altua izango duena eta justizia soziala bermatuko duten baloreetan oinarrituta, Euskal Herriaren garapen kultural, sozial, ekologiko eta ekonomiko justuaren bultzatzaile eta erantzule izango dena. Alta, hezkuntza integral honek herri konpromisoa dakar hala beharrez, heziketa prozesuen erantzule izanen den komunitatea eskatzen baitu, zinez integrala, transbertsala eta inklusiboa izanen bada. Tokian tokiko askotariko eragile, kolektibo, erakunde eta heziguneen lankidetzak da beraz bidea. Jadanik abian den ekimena izaki, han eta hemengo esperientziak partekatu, elkar ezagutza eta saretzea bultzatu eta sinergiak batzeko garaia da.

Euskaldunduko duen eskola eleaniztun baten alde egiten dugunok, berrikuntza metodologiko ez merkantilizatuen alde ari garenek, pedagogia feminista bateranzko norabidean kokatzen garenek, eskola inklusibo baten alde ari garenek, jarduna komunitatean eta parte hartzean oinarritzen dugunok, elikadura burujabetza kontuan hartzen dugunok, komunikazio eta harreman ez-bortitzak kontuan hartzen ditugunok, alderdi afektibo-emozionalari eta baloreetan hezteari ezagutza akademikoari besteko garrantzia -edo gehiago- ematen diogunok, komunikazio eredu horizontal, kritiko eta dialogikoak bultzatzen ditugunok edota segregazio mota oro gainditzeko lanean ari garenek... lekua izango dugun hezkuntza sistema eraikitzeaz ari gara. Oro har, euskal herritar askeak hezteko ardura gure gain hartzen dugun hezkuntza erakunde ororen arteko sare berriak eraikiz, EAEn, Nafarroan zein Ipar Euskal Herrian egon, landa eremuan zein hirian, gaurko sareetako batean edo hauetatik kanpo kokatuta egon. Badugu burujabetza eraikitzea hezkuntzaren eremuan, sare berriak josi, egoeraren jabetzatik aktibismora eta hortik ahalduzera eramanez gaituzten prozesuak sustatuz behin eta berriz eta zapaltzen gaituen ardatz ororekiko.

# **Bidean aurrera pausuak elkarrekin ematen hasteko beharrez, gogoez eta gaitasunez\_**

Gaurtik, behetik gora, biharkoa eraikiz\_

Proposatzen duguna, gaurtik hasita, epe ertainean emaitzak emango dituzten urratsak egitea da. Esan bezala, ez dugu independentziaren balizko E egunaren zain egon beharrik, burujabetza prozesua hezkuntzatik sustatu dezakegu eta horixe da, hain zuzen ere, proposatzen duguna. Nola, baina? Ba, gure esku daudenak egiten: dagoeneko hezkuntza burujabetzaren bidean, maila orotan (antolaketa, kudeaketa, pedagogia aktibo askatzaileak, partaidetza, feminismoa, inklusioa...), abian diren praktika onak bilduz, ezagutuz, indartuz eta ahalik eta hezkuntza-zentro gehienetara zabalduz; praktika on horiek aurrera eramateko, elkarrekin harremanetan jarritz, elkarlana bultzatuz; behetik gorako eraikuntza prozesu anitz eta zabala sustatu behar dugu auzolanean, hezkuntza euskaldunerantz, inklusiborantz, parekiderantz edo nazionalerantz pausua bizkortuz.

Hik Hasik, Eusko Ikaskuntzak, Oinherrik eta beste hainbat eragilek hondar urte hauetan egindako eginahalera batu eta hortik abiatuta honokoak proposatzen ditugu gaurtik egingarri direlakoan, gure herriak horretarako oinarri nahikoa duelakoan, beraz, beste inoren edo ezeren zain egon gabe, ikastetxe, udal, herri zein nazio mailan landu baitaitezke gaurdanik:

- Esparru desberdinetan hezkuntzarekiko, hizkuntza eta kulturaren transmisioarekiko, klase, genero zein ingurugiroan euskal herritar gisara zein norbanakook jasaten ditugun zapalkuntza eta erasoei modu kritikoan aurre eginen dion eredu hezitzaile baten aldeko hautua egiten dugun eragile eta banakoen aliantzak bultzatu beharra dago.
- Ikastetxeetan daukagun autonomia azken zirrikituraino erabiltzea eta ezarritako mugak gainditzea, maila orotan, geure ikastetxeak ahalik eta burujabeen izan daitezen.
- Hizkuntza-ereduen sistema gaindituz, ikasle euskaldun eleaniztunak formatzeko planak diseinatu eta abiatzea.
- Baterako hezkuntza, hezkidetza eta pedagogia feministen ildoak jorratuko duten programak diseinatu eta berauen ezarpena sustatuko duten ikastetxeen sareak josi, non sexu-genero sistemaz, genero sozializazio diferentzialaz, berdintasun ezaz eta irudikeriaz, zaintzaz... hausnarketa kritikoa eginen den. Emakumezkoen ekarpenen eta identitate igualitarioen bisibilizazioa helburu izanen dutenak, bai eta identitate aniztasunaz eta harreman sexu-afektiboez hitzegiteko parada eman ere. Gisako programak martxan jartzeaz gain, hauen ezarpenen ondorioz jasan daitezken/jasaten ari diren eraso patriarkal eta neofaxistei komunitate gisara aurre egiteko tresnak eta aliantzak artikulatzea.

- Segregazioa baztertuz, aniztasuna eta inklusioa bermatzeko bidera daitezkeen neurriak aztertu eta abian jartzea.
- Herri hezitzaileen filosofia geure egin eta lantzea.
- Euskal curriculumak ikastetxe eta, ahal dela, herri/auzo... mailan lantzea, bertako beharrei erantzuteko curriculum-proiektua eta hezkuntza-proiektua uztartuz.
- Hezitzaileen etengabeko formazioa sustatu, pedagogia aktiboak, sozio-kritikoak eta herritarrak ezagutu, garatu eta aplikatzea -baita IKTen ezartze eta orokortze berriak dakartzatenean ere- beti ere kanpo saiakera merkantilizatuei aurre eginez, eta hezitzaileen, gurasoen eta ikaslearen rola, parte hartzea, erantzukizun eta gaitasuna gutxietsi gabe eta multinazionalen irabazteko interesei men egin gabe.
- Ebaluazio hezitzailearen bidetik jotzea, proba estandarizatu eta homogenizatzaileen paradigmez gaindiko kalitate eta aberastasun parametro berriak helburu.
- Ikastetxe zein herri mailan, kudeaketa eta erabakigune parte-hartzaileak sortu, eta horien gardentasuna bermatzea prozesu hezitzaile oro barnebilduko dituzten esparru kolaboratiboak bultzatuz. Horretarako, auzo eta herrietatik abiatuta, hezkuntza mahaiak osatzea proposatzen dugu, gero, beti ere behar eta indarren baitan, eskala handiagora ere proiektatu zitezkeenak (udala, eskualdea, herrialdea, nazioa).
- Laikotasun erreala sustatzea, bai eta kredo, barnekotasun eta pentsaera ez hegemonikoen adierazpideekiko errespetua, mendebal-etnozentrismoaren harrokeria koloniala gaindituko duen ildo kritikoa jorratuz.

## Erakundeak baliatuz\_

Berehalakoan, burujabetzaren edo independentziaren zain egon gabe, egin ditza-kete instituzioek bide horretan aurrera egiten lagunduko diguten urratsak. Horien artean:

- Gure beharretan oinarritutako hezkuntza arautu eta kudeatzeko, hezkuntza-esparru osoa bilduko duen/duten legedi propio eta burujabea(k)osatzeari, hezkuntza komunitatearekin batera.
- Legedi burujabea(k) osatu bitartean
- Ikastetxe zein udal mailan egin daitezkeen urratsak babestu eta aurrera eramateko beharrezko bitarteko zein baliabide nahikoak bermatzea, hezkuntza-komunitatearen parte-hartzea eta ahalduntzea bermatuz.
- Hezkuntzari finantzaketa nahikoa esleituz, doakotasun erreala bultzatzea.
- Gure herriaren beharrak aztertu eta irtenbidea emateko beharrezko titulazioak bertan sortu eta emateko eta maila orotako ikerketa kudeatzeko kompetentziak eskuratzea.
- Ikastetxe barruko berrikuntzan inplikatzeko aukera izan dezaten, langile-leriaren lan-baldintzak duindu eta egokitzea, lan-harremanetarako esparru propioa bultzatuz.

- Hezkuntza-proiektuak taxuz aurrera eraman ahal izateko, hezitzaile eta oro har, hezkuntza langile guztien egonkortasuna sustatzea.
- Hezkuntza kalitatearen mesedetan, lanpostuen galera eta ikastetxeen itxiera ekiditeko ratioen jaitsiera orokorra ezartzea.
- Hezkuntza zentralizatu edo pribatizatzeko neurri berri guztiei ateak ixtea.
- Horrela nahi duten ikastetxeetan, jangelak ez ezik, sukalde propioak eraiki eta erabat kudeatzeko bideak ireki eta baliabideak ziurtatzea.
- ...

## Hezkuntza Akordioa, bategitea\_

Gure hezkuntza sistemen diagnosi zorrotza eginez gero, hasieran aipatu sintoma guztiak mahaiaren gainean jarrita, agortze egoera marrazten da. Diagnosian ondo asmatzea da lehen lana, eta akats larria litzateke panorama hau modu partzialean irakurriko bagenu edota koiunturala izan daitekeela usteko bagenu. Prospekzioen arabera krisi egoera orokor honek Euskal Herrian sortzen dituen ondorioak larritu egingo dira datozen urteetan. Hezkuntza sistemei zuzenean eragiten dieten bi fenomeno konkretu aipatzearren –bi baino ez–, desoreka demografikoak eta migrazio fluxuek gora egingo dute datozen urteetan. Halaber, Espainia eta Frantziaren birzentralizazio prozesuak ez dira etengo eta jo-puntuan izango dute hezkuntza. Ondorioz, egiturazkoa den agortze egoera honen aitzinean, herri ikuspegi sendoko esku-hartze publikorik gabe, egoerak okerrera egingo du nabarmen.

Askotan esan izan dugu iragan ziklo politikoan Euskal Herria gai izan zela, herri ekimenez, premia sozial oinarritzoei erantzuteko. Hezkuntza mugimendua aitzindaria izan da horretan, ezbairik gabe. Herrigintza lan kolosala egin da ikastola mugimenduaren eskutik zein sistema instituzionalaren baitan garatu diren eskolen eskutik. Aitortza zor zaie, baita ere, hezkuntza eredu alternatibo, ez-formal eta informalean aritu diren elkarteei. Alta, gaur, euskal hezkuntza mugimendua biribilgune batean ari da bueltaka orain artean eraikitakoa birrintzen ari den bitartean.

Ez dago soluzio partzialik. Hutsuneak egiturazkoak dira eta larriagotu egingo dira datozen urteetan.

Badago energia hezkuntza komunitatean. Energia hori norabide emankorrean baliatuko dugun ala antzerako desirak ditugunon arteko lehiarako izango den, horixe jokoan dagoena. Lubakietatik atera eta inertziak hausteko unea da.

Mehatxuei eta aukerei erreparatuz, urrats kualitatibo bat emateko tenorean gaudela deritzogu. Gure aburuz adostasun sozial berri bat eraikitzeke garaia da ondoko hipotesi honen gainean: Euskal Herriak badu baldintzarik eta gaitasunik hezkuntza eredu aurreratuenen parean jartzeko. Horretarako, sare bakarreko euskal hezkuntza sistema publiko baten inguruko adostasun sozial bat eraikitzeke garaia da, aipatu bi tradizioen emaria bilduko lukeena. Zein da gure herriak behar duen hezkuntza eredu eta zein da horrek eskatzen duen sistema? Galdera horri erantzun komunitario bateratu bat ematen saiatzea da proposatzen ari garena. Oinarritzko kontsentsu bat posible dela deritzogu, saiakera beharrezkoa dela eta merezi duela. Ondoren, adostasun sozial hori adostasun politiko bihurtzen saiatu beharko ginatke eta adostasunak markatzen duen norabidea ahal beste elikatzen nork bere esparrutik.

Beraz, indarren dispertsioa eta, ondorioz, prozesuaren ahultzea ekidin eta hau guztia aurrera eramateko nahitaezkoa zaigun batasuna eta elkarkidetzaz lortze aldera, bide horretan sinesten dugun guztiok elkarlotuko gaituen Hezkuntza



Akordioa beharrezko dugula uste dugu. Eragile eta hartzaile nagusia hezkuntza-komunitatea izango duen akordioa (herritar “soilak”, mota guztietako hezitzaileak, ikasleak, eragileak, instituzioak...). Eta horren aldeko apustua egiten dugu ezker independentistotik.

Hezkuntza akordioaren bide beretik eta arrazoi berdinegatik, bide honetan sinesten duten ikastetxeak ere norabide berean jarri eta aurrera-urrats gisa, egun sare desberdinetan dauden ikastetxeen arteko bategiterako aukerak aztertzeko proposamena ere egiten dugu. Ildo honek, gaurko sareen kategorizazio bitarra, publiko vs. kontzertatu (maiz arrakala bilakatuta), gainditzeko aukera eskaintzen digulakoan gaude. Ez gara gaurtik biharko konfluentzia edo bategitea emateaz ari, noski. Ondo aztertu eta adostutako trantsizio fase batez ari gara, gure irudiko, euskal hezkuntzak beharrezko duen saretutako ikastetxeez osatutako hezkuntza sistema euskaldun, burujabe, publiko, inklusibo, bateratzaile eta komunitarioa lortu arte.

Azken urteetako dispertsioa eta elkar ulertzerako gaitasun eza gainditzeko urratsak eman beharrean geundeke. Interes partikular eta korporatiboen gainetik herriarenak jarriko dituen jarrera berria premiazkoa da, komunitatea eta bere ki-deak helburu izanen dituena. Zentzu honetan, elkarlanaren bidetik akordio berriak erdiesteko abagune historiko egokia bizi dugulakoan gaude, izan ere, geroz eta gehiago dira horren aldeko hautua publikoki adierazten ari diren agenteak. Oinarria izan bada beraz. Arestian aipatu moduan, auzolana eta, herri parametroetan, komunitategintza egiteko gaitasuna ere ez dugu falta.

Abiapuntu berri bat da proposatzen ari garena. Ziklo politiko berrian gatazka eta kontsentsu berriak behar ditugu, garaikoak. Hezkuntzara etorrira, orain 30 urte izendatu ez ziren gatazkek izendatzea dagokigu, nabarmen generoaren ardatzari dagokionez, adibidez; eta orain arte posible izan ez diren kontsentsu berriak saiatzea ere bai. Abiapuntu honek euskal publikotasunaren adieraren gaineko lurzoru komun bat eskatzen du, Euskal Eskola Publiko burujaberako trantsizio-bidea elika-

tzea posible egingo duena. Garbi dugu euskal publikotasunaren inguruko oinarrizko kontsentsua posible dela betaurreko berriak janzten baditugu eta momentuak eskatzen duen arduraz jokatzeko badugu denok. Goazen bada sendo artikulatutako subjektu berri bat osatzera.